



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek argi berdea emon deusie Punta Begoñako Galeriak berreskuratzeko erakundeen arteko hitzarmenari

Bilbon, 2014ko maiatzaren 15ean

Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskerako batzordeak berretsi egin dau gaur Aldundiak, Getxoko “Punta Begoñako galeriak” izenaz ezaguna dan higiezinaren berreskuratzeko aurkeztu dauen eremu hitzarmena. Oraindino aldean finantza inplikaziorik ez daukan akordioaren helburua, higiezinaren balioa ezagutarazoteko “ildo nagusiak” ezartea da. EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu taldeak akordioaren alde agertu dira, eta PP kontra azaldu da.

Josune Ariztondo Kulturako foru diputatuak adierazo dauenez, akordio horretan inplikautako lau erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Unibersidadea, Getxoko Udala eta Aldundia bera) konpromiso honeek hartu ditue: higiezinaren azterketea eta diagnostikoa sartzea; dokumentazio geometrikoa eta informazio sistemak burutzea; ikerketa historikoak, sozialak, arkitektonikoak, kimikoak, hidro-geologikoak eta beste moeta batzuetakoak egitea; higiezinaren finketea; jarduketaren eragin sozio-ekonomikoa eta estrategikoa aztertzea; eta galerien difusioa eta transmisioa egitea, eta baita herritarren partaidetzarako mekanismoak ezartea be.

Hitzarmenak ez dauka amaierako eperik, eta erakundeak proiektuan inplika beharko dira eta ekarpen ekonomikoa egin beharko dabe. Getxoko Udalaren kasuan, ekarpen hori “handiagoa” izango da, bera dalako galerien jaubea. EH Bilduk eskatuta, Ariztondok argitu dau higiezinaren erabilera “publikoa” izango dala, eta barriztete lanak egiten diran bitartean, gidautako bisita programa bat ezarri ahal izango dala, Añanako gatzagatan edo Gasteizko katedralean jarraitu dan difusio eredu bera jarraituz.

Diputatuak adierazo dau, baita be, barriztete lanak geroago zehaztuko dirala. Erakundeek jarduketa zehatzagoak geroago definiduko ditue, aldeetako bakoak bere gain hartuko dituan ekintzak eta konpromiso ekonomikoa zehaztuko dituen alkarlanerako hitzarmen “berezien” bitartez.

Bizkaiko Talde Popularra (PP) izan da hitzarmenaren alde agertu ez dan talde bakarra. Talde horren eretxiz lehenengo “preminazko” jarduketak egin behar dira konplexuan, “jausi aurretik”, Kultur Ondasun moduan babestuta dagoan konplexuak daukan “ezegonkortasun arazo handia” dala eta. Arturo Aldecoa popularrak adierazo dauenez, higiezinaren, desegiten ari dan hatx baten gainean eusten da, eta hatx hori, aldi berean, hareazko zoruan, eta bere egitura, gatzaz betetako hormigoiz dago eginda.

PP-ko batzarkideak, Sener ingeniariak enpresak orain lau urte planteau eban konponbide “zehatzagoa, erabilgarriagoa eta merkeagoa” defendidu dau. PP-ko ordezkariaren ustez, inplikautako lau erakundeak “oker ari dira”, erantzun “konplexuagoa” aukeratzean. Proiektu horren kostu ekonomikoa, Sener enpresak, garai haretan berreskuratzeko lanak egiteko aurreikusi eban 3,2 milioiko aurrekontua baino “hainbat bider” handiagoa izango da eta, ganera, egin beharrekoak asko luzatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Ariztondok galeriak “egoera txarrean” dagozala autortu dau, baina esan dau, diagnostikoa egiten dan bitartean, galeriak eusteko eta jausteko arriskua saihesteko beharrak egin daitezkeza. “Dana berehala egin gura dogu, baina ondo egin gura dogu”. Berreskuratzea “integrala eta eredugarria” izango da, erantzun dau Ariztondok. Bizkaiko ondareko beste higiezin batzuetan jarduteko “eredua” izango da, esan dau, eta Socialistas Vasco taldea be bat etorri da eretxi horregaz. “Azkenean administrazioek pausuak emongo ditue arazoa konpontzeko eta beste egoera batzuetarako aurrekaria ezarteko”, adierazo dau Juan Oterminek (PSE-EE).

“ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN” TRADIZINOA BERRESKURATZEKO LAGUNTZAK

Batzordean, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako arauz besteko hiru proposamen onartu dira. Proposamenen gaiak honeek izan dira: Bizkaiko herrietako jaietan Erraldoi eta Buruhandien erabilera bultzatzea, Bizkaian Industriaren Museoa egitea, eta Zugaztietako eta Trianoko meatzaritza aztarnak berreskuratzea.

Batzordea zabaldu dauen ekimenaren bitartez, Batzar Nagusiek eskaerea egingo deusie Foru Aldundiari, Bizkaiko udalei eta gizarte eta kultura arloko erakundeei laguntzea emoteko, Bizkaiko jaietan Erraldoi eta Buruhandien erabilera eta berreskuratzea bultzatu daien. Aldecoak (PP) adierazo dauenez, ondarearen elementu horreek gugaz egozan “orain bost eta sei mende”, hasiera batean erlijinoagaz erlazonautako jaietan.

Talde guztiak ekimenaren alde agertu dira, EH Bildu izan ezik. Talde abertzaleak proposamenaren “helburuagaz” bat datorrela adierazo dau, baina abstenidu egin da, bere ustez, Aldundiak horretarako laguntza lerroa zabaltzea eskatzen dauen popularren proposamena “orokorregia eta abstraktuegia” dalako.

BIZKAIAN INDUSTRIAREN MUSEOA ZABALTZEAREN ALDE

Talde guztiak bat etorri dira Aldundiak, Jaurlaritzaren aurrean Bizkaian Euskadiko Industriaren Museoa zabaltzeko interesa agertu daijala eskatzean, administrazioen, unibersidadeen, enpresen, teknologia parkeen eta erakunde espezializauen laguntzagaz.

PSE-EE eta EH Bildu taldeak arduratuta agertu dira, lehendik lurraldean dagozan beste museo batzuegan eragina izan daikealako, Portugaleteko Rialia museoan, adibidez. Talde horreei erantzunez, Arturo Aldecoak, arauz besteko proposamenaren aurkezleak, zentro barriak, Bizkaiaaren industria ondare “garrantzitsuena” erakusten daben zentro horreek “indartu” egingo leukezala esan dau.

EAJ-PNV taldeak, bere aldetik, Aldundiak “azkeneko 25 urteetan” Bizkaiko industria ondarea kontserbetako eta haren balioa ezagutarazoteko egin dauen beharra azpimarratu dau. Jon Sanchez jeltzaleak, Aldundiak El Pobaleko burdinola berreskuratzeke, Meategi museorako edo Boinas La Encartada museorako emondako laguntzea aitatu ditu. Horren ostean bat egin dau Bizkaian Industriaren museoa sortzeko interesa Eusko Jaurlaritzara bideratzeko balioko dauen “bultzada politikoagaz”, ganerako administrazioen aldeko eretxia lortzen badau eta “bideragarritasun planagaz” sortzen bada.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Batzarretako taldeek aho batez onartu daben arauz besteko beste proposamen baten bitartez, eskaerea egiten jako Foru Aldundiari, berak zuzenean eta espezializautako erakundeak egingo dituen azterlanak bultzatu daizan, Zugaztietan eta Trianon dagozan “meatzaritza aztarnak, galeriak, plano okerrak eta minerala aterateko jardueraren beste aztarna batzuk berreskuratzeko, mantentzeko eta etorkizunean izan daikiezan erabilerak aztertzeko”, leku horreen balioa ezagutarazoteko helburuz. Hori egiten ez bada, Bizkaiak “pixkanaka” galdu egingo ditu, Aldecoak adierazo dauenez.

KOBIE ALDIZKARIAREN DIGITALIZAZINO A

Beste proposamen baten bitartez, PP taldeak proposamena egin dau, Foru Aldundiak, 1969. urtetik gaur egunera arteko KOBIE aldizkariaren eukiak Internet sarean jarri daizan. Azkenean, batzarkide popularrak bere ekimena baztertu egin dau, Ana Esther Furundarena ordezkari jeltzaleak adierazo dauelako Kultura sailak egin dauela argitalpen horren digitalizazinoa, eta “datorren astean” Aldundiak iragarriko dauela funts bibliografiko horreek jente guztiarentzat noz aktibauko diran Aldundiaren webgunean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales dan luz verde al convenio interinstitucional para recuperar las Galerías de Punta Begoña

Bilbao, a 15 de mayo de 2014

La comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia ha ratificado hoy el convenio marco presentado por la Diputación para la recuperación del inmueble conocido como Galerías de Punta Begoña (Getxo). El objetivo del presente acuerdo, que de momento no conlleva implicación financiera de las partes, es establecer las “líneas generales” de la puesta en valor del citado inmueble. PNV, PSE-EE y EH Bildu han dado el visto bueno al acuerdo, mientras PP lo ha rechazado.

Según lo señalado por la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, las cuatro instituciones implicadas en dicho acuerdo (Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco, el Ayuntamiento de Getxo y la propia Diputación), se comprometen a incluir un análisis y diagnóstico del inmueble; elaborar la documentación geométrica y los sistemas de información; realizar las investigaciones históricas, sociales, arquitectónicas, químicas, hidrogeológicas y de otra índole; consolidar el inmueble; realizar el impacto socioeconómico y estratégico de la actuación; y elaborar la difusión y transmisión de las galerías, así como establecer los mecanismos de participación ciudadana.

El convenio no tiene plazo de extinción y obligará a dichas instituciones a implicarse en el proyecto y a realizar una aportación económica que, en el caso del ayuntamiento de Getxo, será “mayor” al ser el propietario de las galerías. Ariztondo ha aclarado, a petición de EH Bildu, que el inmueble será de uso “público” y que mientras se rehabilite, se podrá establecer un programa de visitas guiadas siguiendo el mismo modelo de difusión que se ha hecho en las salinas de Añana o en la catedral de Vitoria/Gasteiz.

La diputada ha señalado también que la concreción de los trabajos de rehabilitación llegará más adelante. Las instituciones definirán actuaciones más precisas mediante los correspondientes convenios de colaboración “específicos” en los que se detallarán las acciones y los compromisos económicos que asumirá cada una de las partes.

El Popular Vizcaíno (PP) ha sido el único grupo de la Cámara en negarse a apoyar el convenio, ya que entienden que se debería actuar primero de forma “urgente” sobre el complejo “antes de que se derrumbe”, debido al “gran problema de inestabilidad” que soporta el inmueble que tiene la protección de Bien Cultural. Las galerías se apoyan –según el popular Arturo Aldecoa– en una roca que se deshace, que se asienta a su vez sobre un suelo arenoso y en donde su estructura está levantada con hormigón lleno de sal.

El juntero del PP ha defendido la solución “más concreta, más útil y más barata” que planteó la ingeniería Sener hace cuatro años. Para el representante del PP las cuatro instituciones implicadas “se equivocan” al elegir ahora una respuesta “más compleja” cuyo coste económico será superior “en varias veces” a los 3,2 millones de euros que estimó esta empresa que podían



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

suponer en aquel tiempo las tareas de recuperación y que provocará que las labores de recuperación puedan demorarse.

Ariztondo ha reconocido que las galerías están “en mal estado”, pero que, al mismo tiempo que se hace el diagnóstico, se pueden ir acometiendo trabajos para apuntalar las galerías y evitar riesgos de derrumbe. “Queremos hacerlo todo ya, pero bien hecho”. La recuperación será “integral y modélica” le ha respondido la diputada, quien ha insistido en que Punta Begoña marcará un “modelo” a seguir para actuar en otras edificaciones del patrimonio vizcaíno, en lo que ha coincidido con el grupo Socialistas Vascos. “Por fin las administraciones van a dar pasos para solucionar el problema y establecer un precedente para otras situaciones”, ha manifestado Juan Otermin (PSE-EE).

AYUDAS PARA RECUPERAR LA TRADICIÓN DE “GIGANTES Y CABEZUDOS”

En la citada comisión, se han aprobado tres proposiciones no de norma, presentadas todas ellas por el grupo juntero Popular Vizcaíno (PP). Las mismas se referían al impulso a la tradición de “Gigantes y Cabezudos” en las festividades locales, a crear un Museo de la Industria en Bizkaia, y a recuperar los restos mineros de La Arboleda y Triano.

Mediante la iniciativa que abría la comisión, las Juntas Generales instarán a la Diputación Foral a que apoye a los ayuntamientos y entidades sociales y culturales de Bizkaia para que promuevan el mantenimiento y la recuperación del uso de los Gigantes y Cabezudos en las fiestas de Bizkaia, elementos patrimoniales que estaban con nosotros desde hace “cinco y seis siglos”, según Arturo Aldecoa (PP).

Todos los grupos han votado a favor de la iniciativa a excepción de EH Bildu que ha manifestado compartir la “intención” de la misma. La coalición abertzale se ha abstenido porque creen que la propuesta popular, que incluye que la Diputación abra una línea de ayudas forales para tal fin, es “excesivamente genérica y abstracta”.

POR UN MUSEO DE LA INDUSTRIA EN BIZKAIA

En lo que sí ha habido unanimidad ha sido en apoyar que la Diputación se interese ante el Gobierno Vasco por impulsar la creación de un Museo de la Industria del País Vasco en Bizkaia, con la colaboración de las diversas administraciones, universidades, empresas, parques tecnológicos y entidades especializadas.

En contestación al PSE-EE y EH Bildu que se mostraban preocupados porque el nuevo museo pudiera interferir en otros que existen ya en el Territorio como el museo Rialia de Portugalete, el impulsor de esta proposición no de norma, Arturo Aldecoa, ha señalado que el nuevo centro podría servir para “potenciar” estos centros dedicados a difundir el “importante” patrimonio industrial con que cuenta Bizkaia.

Por su parte, el PNV ha defendido el papel de la Diputación en relación al trabajo hecho por esta institución “en los últimos 25 años” por la conservación y puesta en valor del patrimonio industrial vizcaíno. El jeltzale Jon Sánchez ha citado el apoyo foral para la recuperación de la ferrería de El Pobal, el museo Minero o el museo de Boinas La Encartada, para después sumarse



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

a lo que ha definido como un “impulso político” para trasladar al Gobierno Vasco la creación de un museo de la Industria en suelo vizcaíno, siempre que tenga el beneplácito del resto de administraciones y que nazca con un “plan de viabilidad”.

Otra proposición no de norma acordada por unanimidad de los grupos junteros, insta a la Diputación Foral a que impulse estudios, tanto propios como de entidades especializadas, “para la recuperación, mantenimiento y análisis de futuros usos posibles para los restos mineros, galerías, planos inclinados y otros vestigios de la actividad extractiva del mineral”, existentes en La Arboleda y Triano, a fin de poner en valor estos lugares. Si no se hace, Bizkaia sufrirá “lentamente” su pérdida, ha pronosticado Aldecoa.

DIGITALIZACIÓN DE LA REVISTA KOBIE

El PP proponía también, a través de otra proposición, que la Diputación foral incorporase a su página web los contenidos digitalizados de la revista de carácter científico Kobie desde el año 1969. Finalmente, el juntero popular ha retirado su iniciativa tras informar la representante jeltzale Ana Esther Furundarena que el departamento de Cultura ya ha realizado el trabajo de digitalización de esta publicación y que la “próxima semana” la Diputación anunciará cuándo se activarán al público en la web foral estos fondos bibliográficos.